

## 02/2018 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2018KO MAIATZAREN 28AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

##### BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M<sup>a</sup> Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2018ko maiatzaren 28an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M<sup>a</sup> Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziek ez dute ezin etorria adierazi.

#### 1.- 2018KO OTSAILAREN 26AN OSPATUTAKO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2018ko otsailaren 26ko udal plenoaren bilkuraren akta aho batez onartu da.

#### 2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2018KO OTSAILAREN 19TIK MAIATZAREN 15A BITARTE, 54 ZENBAKITIK 184 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

2018ko otsailaren 19tik 2018ko maiatzaren 15a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

#### 3.- 2017 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzak jakintzat eman du 2018ko martxoaren 28ko dekretua, zeinaren bidez 2017 Ekitaldiko Aurrekontu Propioaren Likidazioa onartzen den, eta honela dioena:

#### “DEKRETUA

Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako

Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

**EBATZI DUT**

**Lehena.-** Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINITZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		1.081.726,62
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		201.699,62
Aurrekontuko zordunak :	203.394,66	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.412,14	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	3.107,18	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		219.424,29
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	159.593,41	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	61.510,86	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	1.679,98	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		1.064.001,95
5.- Saldo kobragaitzak:		119.705,88
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		944.296,07

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-137.136,62
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-32.642,43
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	319.509,71
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	149.730,66

#### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	236.501,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	1.777.229,90
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	2.013.730,90

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

#### **4.- 2019. URTERAKO ANOETAKO JAIEGUNA IZENDATZEA.**

Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailaren apirilaren 10eko 51/2018 Dekretua bidez Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2019. urteko jaiegunen egutegia onartu da. 2018ko apirilaren 16ko 72 zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua.

Aipatutako dekretuaren 2. artikulua ondorengo xedatzen du:

1.- Lan ondorioetarako, bi mila hemeretzigarren urtean, tokian tokiko jaietako bi egun ere baliogabe izango dira, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu behar. Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako udalbatzek proposatuta. Egun horiek berberak edo beste batzuk izan daitezke lurralde historikoetako udalerrietan.

2.- Dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean egin behar dute proposamena udalek, eta bakoitzak Lan eta Justiziako bere lurralde-ordezkaritzara bidali.

Alkateak bi mila eta hemeretzigarren urtean 2019ko ekainaren 20, Gorpuzti eguna, Anoetako Udalerriko jaietako egunetako bat izatea proposatu du. Aipatutako proposamena bozketara eraman eta aho batez onartu da.

#### **5.- “2018-2019 URTEETAKO PAREKIDETASUNEN PLANIFIKAZIOA (BERDINBIDEANEN PROGRAMAREN BAITAN)”, “JAIETAN EMAN DAITEKEEN INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN ERABILTZEKO PROTOKOLOA” ETA “JAI EUSKALDUNAK,**

##### **PARTIZIPATIBOAK ETA PAREKIDEAK” DOKUMENTUAK ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Parekidetasun batzordeak, 2018ko maiatzaren 9an egindako bileran aztertu zituen gai hauei buruzko dokumentuak:

- Jai euskaldunak, partizipatiboak eta parekideak antolatzeko irizpideak (herritarrekin batera landutakoak).

- Jaietan eman daitekeen indarkeria matxistaren aurrean erabiltzeko protokoloa (herritarrekin batera landutakoa).

- 2018-2019 urteetako parekidetasuneko planifikazioa (Berdinbidean programaren baitan).

Ikusita Parekidetasun batzordeak 2018ko maiatzaren 9an emandako irizpena.

Horiek guztiak ikusita, akordio hauek onartzen dira, aho batez:

1. Udalbatzak onartzea Parekidetasun Batzordeak Anoetako herritarrekin batera landu dituen bi dokumentuak eta 2018-2019 urteetarako parekidetasuneko planifikazioa.
2. Udalbatzarraren onarpena departamentu guztiei jakinaraztea, dagokion ondorioetarako.
3. Erabaki honi, eta bere edukiaren parte bezala erantsi onartu diren dokumentuen testuak eta I, II eta III Eranskin moduan.

**6.- “MAIATZAREN 17: TRANSFOBIA, LESBOFOBIA ETA HOMOFOBIA AURKAKO EGUNA”: ANOETAKO UDALAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA.**

EH Bildu talde politikoak deialdiarekin batera banatu eta Aratz Luisa Urkola zinegotziak irakurri du ondorengo erakunde adierazpena:

*“Anoetako Udalak LGTBI+ pertsona guztien kontrako indarkeriaren adierazpen guztiak gogor gaitzesten ditu eta neurri zehatzak abiaraztera konprometitzen da, zehazki:*

- *Udal honek Jaietako jorratu duen Indarkeria Matxistaren Aurkako protokoloan aintzat hartzen ditu LGTBI+ kolektiboen aurkako indarkeri mota guztiak.*
- *Udal honek Anoetako Herri Ikastolarekin batera LGTBI+ ikuspegia zerikusia duten programa antolatu eta gauzatu du ikasturte honetan, eta, konpromisoa hartzen du aurrerantzean ere Ikastolarekin lankidetzan gaiaren lanketa burutzeko. Horrez gain, herriko beste hainbat zerbitzuetan (aisialdia, umeak eta gazteria) gaiarekiko ikuspegia txertatzeko konpromisoa hartzen du.*
- *Udal honek eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari ez erabiltzea indar polizialak cruising egiten dutenen askatasuna mugatzeko asmoz.*
  
- *Udal honek gaitzesten ditu homosexualen konbertsio terapien aldeko jarrerak (banakakoak nahiz kolektiboak), eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio holako terapiak abiatzeko neurriak debekatzea.*
- *Udal honek eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari txerta dadila modu koordinatu eta integralean (jarraipena eta baliabideak zehatzuz) LGTBI+ eta hezkuntza sexu-afektiboaren gaiak hezkuntza kurrikulumean, beti ere ikuspegi feminista batetik, elkarlanean aditu eta LGTBI+ kolektibo eta mugimendu feministarekin.*
- *Udal honek eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari diagnostiko bat burutu dezala, 6 hilabeteko epean, Euskal Autonomi Erkidegoan LGTBI+ pertsonak dituzten eskubide urraketa nagusiak identifikatzeko eta, diagnostiko horretatik abiatuta Berdindu zerbitzuaren helburuak eta lan lerroak indetifikatuko dituen plana osa dezala.*
- *Udal honek eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Berdinduen politik norabidetzeko zuzendaritza bat sortu dadila Enplegu eta Gizarte Politika sailaren barnean.*

*Anoetan, 2018ko maiatzaren 28an”*

Aipatutako erakunde adierazpena bozketara eraman da eta honakoa izan da emaitza:

Aldeko botoak: BOST (BILDU talde politikoa)

Aurkako botoak: BAT ERE EZ

Abstentzioak: BI (EAJ talde politikoa)

*Galde-erreguen tartearen aurretik, partaideen aldetik aho batez premiatasuna adierazi ondoren, eta udalbatzako batzarkide kopuru legalaren gehiengo absolutuaren boto baikorra ordezkatzeko dutela kontutan harturik, ondorengo gaia aztertu da:*

**7.- ANOETAKO HERRI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAK ANOETAKO HERRI ESKOLAREN ERABILERAKIN JARRAITZEKO UDALAREN BORONDATE POLITIKOAREN INGURUKO ERAKUNDE**

## **ADIERAZPENA.**

EH Bildu talde politikoak deialdia banatu ondoren aurkeztutako ondorengo erakunde adierazpena aho batez onartu da:

“Anoetako Herri Eskola hezkuntzarako eraikin publikoaren instalakuntzak Anoetako Herri Ikastola Kooperatiba Elkarteak erabiltzeko administrazio baimena eman zen, 1996ko azaroaren 27ko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Baliabide eta Kontratazioko Zuzendariaren ebazpenaren bidez.

Anoetako Udalak ez zuen erabiltzeko administrazio baimena ematean parte hartu.

Erabilera lagapenaren epea 1997ko abuztuaren 31 artekoa zen; urtez urte luzatzen joan da automatikoki gaur arte.

Anoetako Udalaren borondatea da Anoetako Herri Ikastola Kooperatiba Elkarteak hezkuntzarako eraikin publikoa den Anoetako Herri Eskolaren instalakuntzak erabiltzen jarraitzea, horretarako beharrezkoak diren legezko neurriak hartuaz.

Lehenengo pausoa, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzea, Anoetako Herri Ikastola Kooperatiba Elkarteak erabiltzen duen eraikinaren jabetza eta eskumen guztiak Udalarenak direla aitortzen duen egiaztapena eskatzeko, hau da, Eusko Jaurlaritzak ez duela eraikin horren gaineko titulartasun edo inolako eskubiderik aitortzen duen egiaztapena, 2018ko maiatzaren 25ean alkate jaunari telefonoz izandako elkarrizketa batean jakinarazi zitzaion bezala.

Era honetara, aipatutako egiaztapena lortu ondoren, Anoetako Udalak legez eta erabateko autonomiaz zehaztu ahal izango du Anoetako Herri Ikastolako eraikinaren erabilpena.

Anoetako Udalak aditzera eman nahi:

Lehena.- Anoetako Udalaren borondate politikoa da Anoetako Herri Ikastola Kooperatiba Elkarteak Anoetako Herri Eskolaren erabilerarekin jarraitzea.

Bigarrena.- Anoetako Udalak bere borondatea gauzatzeko dagozkion neurriak hartuko ditu, Anoetako Herri Ikastola Kooperatiba Elkarteak Anoetako Herri Eskola erabiltzen jarrai dezan.”

## **8.- GALDE ERREGUAK.**

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hogeirenean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede

ematen dudalarik.